

Otaegi- Mugerza lehia «estua»

Larunbatean izango
da Asteasun ▶ 4



Kaltetuen zerrenda ireki dute Elduainen

ESKAERA ▶ Erreklamazioak egiteko suteak eragindako kalteen balorazioa egin behar da

ARGAZKIAK ▶ Udaletxean aurkeztu behar dira eskaerak; argazkiak eskatu ditu Udalak ▶ 6



Santa Kruz ermitako lau paretak besterik ez dira gelditu zutik. HITZA



SINADURA

Renobales, GRAVN pilota txapelketan

ALEGIA ▶ Parte hartzea «ohore handia» dela adierazi dio HITZAri; «irudi ona» ematea eta emaitza onak lortzea ditu helburu ▶ 5

**TOLOSALDEA-
LEITZALDEA** ▶

Oporretako HITZA argazki lehiaketa

Hiru sari eder izango dira irabazleentzat ▶ 2

LEITZA ▶

Els Verdums eta Asketa Txiki koruen arteko elkartrukea

Igualadara itzuli dira bisitariak; hurrengo astean itzuliko diete bisita ▶ 7



'SAN INAZIO'
MEDIKU ZENTROA

R.P.S 401/04

KONTSULTAK

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

San Inazio, 2 (Muñazabal altzarien ondoan) • TOLOSA
EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24

TOLOSA ▶ GIZARTEA

«Mundu justu baten aldeko apustua egiten dugu»

Emakumeari buruzko jardunaldia egin dute Inmaculada ikastetxeak, konpromisoak hartuz

I. ETXEBESTE

«Duela bi aste asteardean, martxoaren 8an, Tolosako Inmaculadaren ikastetxean emakumeari buruzko jardunaldia egin genuen, eta jardunaldiaren amaieran ikasleek eta irakasleek batera adostutako manifestua denei iristaraztea nahi

dugu», adierazi dute ikastetxe horretako arduradunek.

Irakasleek ikasleekin batera onartutako manifestuak dio «mundu justu baten aldeko apustua» egiten dutela, «non emakumearen aldeko bezalako nazioarteko egunek lekuri ez duten izango, baztertutako kolektiboak egon ez daitez

eta haiei zor zaizkien eskubideak berreskura ditzaten».

Ikastetxe bezala, emakumearen eskubideak defenditzeko konpromisoa hartu dute Inmaculadakoe, «inolako sexu, kultura, arraza, erlijio, adin, pentsamendu politiko, mota guztietako ezintasun, heziketa, egoera soziala... bezalako baz-

terketarik egin gabe». Izan ere, «ikasle, irakasle edo langile garen aldetik parekidetasuna bultzatzeko konpromisoa berresten dugu», adierazi dute.

Jardunaldi horiek antolatzerakoan laguntza eman dien Haurralde Fundazioari esker emanez amaitu dute ikasleek eta irakasleen mezua.

'HITZA'-REN ARGAZKI LEHIAKETA ▶

IRATXE ETXEBESTE

Aurreko udan jarri zuen HITZAK abian ekimen hori, eta aurten go Aste Santuko oportretan Tolosaldeko eta Leitzaldeko herriar asko kanpora joatekoak direnez, berriro egitea pentsatu dugu: han eta hemen, batean eta bestean izan direnek ateratako argazkiak azken orrialdean emango ditugu argitaratu Aste Santuko oportretatik bueltan. Zuek, HITZAKO harpidedunek eta irakurleek bidalitako argazkiak.

Oraingoan, ordea, lehiaketa egingo dugu bidalitako argazki guztien artean. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK izendatutako epaimahaiak zortzi bat argazki hautatuko ditu erredakziora iristen diren guztien artean, eta horiek izango dira finalerako sailkatuta geratuko direnak. Zortzi argazki horiek egun berean kaleratuko ditugu HITZA egunkarian, zuek ere, irakurleek eta harpidedunek, zuen argazki gustukoena aukera dezazuen. Finalera heltzen diren argazkietatik hiru sarituko ditu HITZAK: epaimahaiak eta irakurleek erabakitakoaren arabera, sari ezberdinak jasoko dituzte lehen hiruak, eta bozketan parte hartzen dutenen artean opari bat zozketatuko dugu.

Berdin balio dute lagun talde bati ateratako argazkiak eta paisaia bati egindakoak. Berdin Asia ekialdeko herri txiki batean eginak eta Bermeoko portuan dagoen katua islatzen duenak. Argazkiarekin batera irudia deskribatzen duen testu labur bat bidaltzea eskatzen dizuegu, argazkiak bezala, balioa izango baitu testuaren orijinaltasunak ere. Argazki analogikoak, digitalak eta diapositibak onartuko ditu HITZAK lehiaketarako. Hortaz, badakizue, mendi aldera, hondartzara, basamortura... bazoazte, ez ahaztu: kamara eraman!



Urtarrilaren erdialdera, Aizkorri mendikatetik, Aratzeko tontorretik, ateratako argazkia. L. MONTES

Oporretako argazki lehiaketa antolatu du HITZAK egunotarako

Aste Santuko oportretatik bueltan jarriko du abian; hiru sari banatuko ditu HITZAK finalera heltzen diren guztien artean

TOLOSA ▶

Tolosako Babarruna ereiteko diru laguntzak

Apirilaren 15era arte dute baserriarrek elkartean eskaerak aurkezteko epea

I. ETXEBESTE

«Lurra baduzu eta ez dakizu zer egin? Zure baserriarako alternatiba baten bila al zabilta? Babarrun ekoizlea zara, edota izan nahi duzu?». Horrela hasten da Tolosako Babarruna Elkartekoek kide berriak bilatzeko abian jarri duten kanpainaren mezua. Lur pixka bat eduki, eta galdera horiei erantzuna eman nahi dion orori zuzendutako mezua, hain zuzen ere.

Tolosako Babarruna elkarteko kide berriek ez omen dute profesionalak izan behar; horrela diote, behintzat, kanpainaren sustatzaileek, eta inbertsio handiegirik ez dutela eskatzen ere adierazi dute. Tolosako Babarruna elkartekoek soroko lanei buruzko aholkuak ematen dituzte. Babarruna erein eta pardak jartzeko makinaria ere prest dute. Baserriarra soroko lanez arduratzen da, eta behin babarruna biltzen dutenean, lehortu eta elkar-teak Tolosan duen egoitzara eramaten da leka eta guzti. Aletu, bereiztu, izoztu eta zakuratu egiten dute babarruna bertan.

Bestalde, babarruna ereitegatik ematen duten diru laguntzaren kudeaketa (600 euro hektareako) errazten dute. Inbertsioa arintzeko, berriz —barillak eta esolak erosteko—, Foru Aldundiarekin duten hitzarmenari esker, %60ko finantziazioa eta diru laguntza eskaintzen dute Tolosako Babarruna elkartekoek. Azkenik, kalitate maila betetzen duen produkzio guztia erosteko konpromisoa hartzen dute: «hori da garrantzitsua baserriarrentzat».

«Famili edota etxeko ekonomiare osagarri ona omen Tolosako Babarrunaren produkzioa; beraz, ez ezazu gehiago pentsatu», esan dute elkarteko kideek. Apirilaren 15ean amaitzen da Tolosako Babarruna ereiteko diru laguntzak eskatzeko epea. «Deitu lehenbailehen Tolosako Babarrunaren elkartera: 943 65 02 53».

ARETO FUTBOLA ▶

«Lau puntu» lortu ditu Laskorainek

Ikastolakoek 3-5 irabazi zioten Nogales taldeari, Astigarragan

ERREDAKZIOA

Laskoraingo Mikel Altuna «perla ilehoriak» idazten dizkio maiz HITZARI bere taldearen partidaren kronikak. Barru-barrutik bizitzen du futbola eta ikastolako norgehiagokak. Horregatik, bere artikulua hitzez hitz publikatzea erabaki dugu. Hala dio:

«Bat baino gehiagok artikulo honi hasiera ematen dion izenburuan akats bat dagoela usteko du, ikastolako mutilek 4 puntu eskuratu zituztela aipatzen baitugu. Baina ez da errakuntza baten ondorioa. 4 pun-

tu diogu, ohorea eta duintasunari dagokien puntu morala gehitu nahi genielako garaipenarekin ofizialki lortzen diren 3 puxtarri. Alde batetik, Gipuzkoarren arteko derbi batek bilduten dituen lehia eta erakargarritasuna zeuden. Bestetik, lehenengo itzulian astigarragarrek horitxoen emaitza positiboen bolada bikaina hautsi izana. Honengatik guztiagatik, larunbatean lortu zuten garaipenak erabat asebate zituen ikastolatarrak, zapora gozoarekin utziz Aste Santuetako geldialdiari begira.

Partida maldaz gora jarri zi-



Ikastolakoak, denboraldi hasierako entrenamendu batean. I. ETXEBESTE

tzaian Egizabalen mutiliei lehenengo minutuetan Nogaleskoek lortu zituzten bi golen erruz. Biak area kanpotik egindako jaurtiketetan. Hala ere, tolosarrek lasaitasunez jokatzen jarraitu zuten, burua inoiz galdu gabe. Beren atea ongi defendatzeaz gain, pixkanaka astigarragoen atezainaren ingurura hurbiltzen joan ziren. Honela, Amatriainek lortu zuen lehenengo gola korner bat berak bakarrik dakien bezala errematatu ostean. Yustos izan zen bigarrenaren egilea, arraza eta amorruz jositako jokaldi bat ezkerkada ikusgarri batekin amaituz. Bi segundo-

ren faltan Altunak bi eta hirukoa ezartzeko aukera izan zuen hain gogoko duen hamar metroko distantzia magiko horitatik. Oraingoan ez zuen huts egin.

Markagailuari itzulipurdi ikusgarri hau eman ondoren horitxoen moralez indartsu ekin zioten bigarren zatari. Nahiz eta Nogaleskoek hiruko berdinketa lortu, ikastolakoek serio eta kontzentratuta jarraitu zuten orainoan garaipenak ihes egingo ez zien segurantzarekin. Eta 'nahi izatea ahal izatea' denez, berriz ere aurreratu egin ziren Amatriainen jokaldi ikusgarri bat Telle-

txeak sareratu zuenean. Norgehiagoka amaitzeko 3 minutu falta zirenean, Saldiasek ezarri zuen azken 3 eta 5koa, bere pintxe eta asistente partikularra den Altunaren zerbitzu bati esker.

Garaipen honekin, ikastolatarrak sailkapenaren laugarren postura itzuli dira. Orain hirugarren den Lo+MRWri ez alde egiten uztea da jomuga nagusia. Hurrengo bi asteburuetan ez dute partidurik jokatuko, baina apirilaren 9an aurtengo denboraldian porrotik ezagutu ez duen Piti Pascual liderraren bisita jasoko dute, Berazubini. Erronka oso zaila baina arras erakargarria.

Egizabal entrenatzaileak, Javier Saldias delegatuak eta Alonso, Altuna, Amatriain, Arregi, Barriola, Domentxe, Gil, Saldias, Telletxea, Yustos eta Zubillaga jokalariek, Xabier Bengoetxea, Laskorainen historian urrezko hamaika orrialde idatzi dituen mito bizidunari, eskeini nahi dizkiote 3 puntuak, hain fruitu gozoa eman duten lehengo asteko entrenamenduak maixuki zuzentzeagatik.

KULTURA ▶

2005 Txema Zubia saria, Leidorren

Txotxongiloen Nazioarteko Egunaren —herenegun, hilaren 21a— eta Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren —igandea, hilaren 27a— harira, 2005 Txema Zubia saria banatu zuten herenegun iluntzean, Leidorren. Tolosako Ekinbide Etxearen (TEE-CIT) Titirijai txotxongilo jaialdiak irabazi zuen sari hori iaz, eta bertako ordezkariak pasatu zioten aurtengo irabazleari: Felipe Bernues. Ttiantaka taldeko zuzendariari, hain zuzen ere. Ondoren, Kukubiltxo konpainiak *Ekidazu. Lehoiek ez dakite bibolina josten* izeneko ikuskizuna aurkeztu zuen Leidorreko taula gainean. Argazkian, Miguel Arretxe eta Idoia Otegi Titirijaiko arduradunak, Bernuesi saria ematen.



Ezker-eskuin: Miguel Arretxe, Idoia Otegi eta Felipe Bernues, sari banaketa ekitaldian, herenegun, Leidorren. KLSK

ESKERTZA ▶

Eskerrak, istripua izan zuen umeari laguntzeagatik

Pasa den ostegunean, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Plaza Berrian istripua eduki zuen umeari lagundu ziotenei «bihotzez, mila esker» esan nahi diete haurrenaren gurasoek.

HIRUGARREN ADINA ▶

Calellara joateko izen-ematea Harizpen

Harizpe jubilatu eta pentsiodunen elkarteak oporrak antolatu ditu Calellara (Katalunia), maiatzaren 21etik 4ra. Autobusean joan-etorria, 14 eguneko egonaldia mantenu osoan, bidaia aseguru eta gida zerbitzua sartzen dira prezioaren barruan. Bazkideentzat 339 euro balio du oporraldiak, eta bazkide ez direnentzat 345. Gaur zabalduko da izen-emate epea, elkartean —gaur eta hilaren 30a, bazkideentzat soilik—, 100 euro ordaindu behar dira izena ematean, eta gaitzartze txartela hartzerakoan. Bazkideek txartel eguneratua aurkeztu behar dute.



Marraskilo taldekoak, irteerari ekin aurretik. MARRASKILO

ZIKLOTURISMOA ▶

Marraskilokoan irteerak Aste Santuan

Marraskilo zikloturista taldekoek ez dute atsedeen hartuko Aste Santuan. Izan ere, bi irteera antolatu dituzte. Igandean, hilaren 27a, Tolosa-Atagoiti-Zumarraga-Itaso-Ormaiztegi-Tolosa 80 kilometroko ibilbidea osatuko dute. Eta hurrengo igandean, apirilaren 3a, Tolosa-Usurbil-Orio-Aia-Anoeta-Hernalde 75 kilometroko irteera egingo dute. Bi egunotan 09:00etan da hitzordua, taldearen egoitzatik (Berazubi auzoa).

PILOTA ▶

Tolosaldeko II. Topaketak hastear dira

Tolosaldeko II. Eskupilota Topaketei ekingo diete laster, eta egunotan zabalik da izen-ematea. Parte-hartzaile guztiak eskualdekoak izan behar dute, eta harremanetarako telefonoa utzi behar dute izena ematerakoan. Honako mailatan banatuko dituzte pilotariak: aurrebenjaminak (1997-98. urtean jaiotakoak), benjaminak (95-96), alebinak (93-94), infantilak (91-92), kadeteak (89-90), jubenilak (87-88) eta seniorrak (...-96). Hilaren 27a da izena emateko azken eguna. Horretarako, telefono hauetara deitu behar da: 647 31 55 99 (Jeremias), 943 01 65 25 (Ortiz) eta 617 04 40 55 (Egiguren).

ANOETA ▶ UDAL BILKURA

Udalak baimena eman du Iturtzuloko etxeak eraikitzen hasteko

Babes ofizialeko 58 etxebizitzak eraikitzen hasteko sei hilabeteko epea izango du Bildo 5 sozietate kooperatiboak



Iturtzulo izenez ezagutzen den A 19 arean egingo dituzte etxebizitzak. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Anoetan egindako azkeneko udal bilkuran hainbat puntu jorratu zituzten, tartean A 19 arean —Iturtzulo bezala ezagutzen dena— egingo diren babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen hasteko baimena onartzea. Guztira 58 etxebizitza eraikiko dituzte, garaje, trasteleku eta hirigintzako osagarriekin. Bildo 5 sozietate kooperatiboak osatu dute etxebizitzaren jabe izango diren herritarrek eta berak dauka etxebizitzak eraikitzearen ardura. Sei hilabete izango dituzte lanak hasteko, emandako lizentzia irautzitzea nahi ez badute.

Bilkuran ere, aurreko hiru aktak onartu ziren. Bestalde, alkatetzaren dekretuen berri

eman zen, tartean aipatutako Iturtzuloko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze baimena. Beste puntu batean, Anoetako erroldaren bilakaeraren berri eman zen. 2004. urteko datuak bildu dira. Urte horren hasieran 1.777 biztanle zeuden Anoetan eta 2005eko urtarrilean 1.787. Beraz, 10 biztanle gehiagorekin hasi du aurtengo urtea Anoetak.

Bilkuraren beste puntu batean udal langilean soldataren igoerari buruz aritu ziren. Aurtengo igoera zehaztu gabe dagoenez, igoera erabaki arte %2,5eko igoera egitea ebatzi zuen bilkurak. Beste puntu batean, Orbinoren handitzea dela eta enpresak aurkeztutako xehetasun azterlanari behin betiko onspena ematea erabaki zen.

ERROLDA BERRIA ▶

2005eko urtarrilean Anoetako Udaleko erroldaren egoera.

Biztanle kopurua. 1.787 biztanle daude herrian, 12ko urtarrilean baino 10 gehiago.

Gizonezkoak eta emakumezkoak. Gizonezkoak 922 dira eta emakumezkoak 865.

Jaiotzak eta heriotzak. 2004. urtean zehar 17 biztanle jaio dira eta hildakoak 15 izan dira.

Biztanleen mugimenduak. Kanpotik Anoetara joandakoak 60 izan dira 2004. urtean, horietatik 3 atzerriatik. Herriatik kanpora joandakoak 52 izan dira.

ZIZURKIL ▶ KIROLA



Joseba Otaegi, Bidegoianen jokaturako kanporaketan. I. GARCIA

Otaegik lehia «estua» espero du larunbatean

Aizkolari zizurkildarra Ugaitz Mugerza mutrikuarraren aurka ariko da Asteasun

SINADURA

Joseba Otaegi zizurkildarrak bigarren kanporaketa jokatu du larunbatean Urrezko Aizkoraren banakako lehiaketan, gazteen mailan. Asteasuko frontoian jokatu da lehiaketa, 23:00etan hasita.

Orain bi asteburu erraz irabazi ondoren David Amillano altsasuarrari, oraingoan zailagoa izango du zizurkildar gazteak. Ugaitz Mugerza mutrikuarra izango du aurrean, asteburu honetan Atutxa bizkaitarrari aise irabazi ondoren. «Lehia estua izango da larunbatekoa», esan dio Hrtzari Otaegik.

Urte dezente daramatza Mugerzak aizkoraren munduan, 18 urte baditu ere. Bere aita aizkolaria izandakoa da eta gertutik bizi izan du kirola. «aurreko urtean gerra handia eman zuen eta nahiko aurrera iritsi zen lehiaketan», azaldu du Otaegik. Zizurkildarrak Bidegoianen izan zuen aurkari berdina izan zuen kanporake-

tako batean Mugerzak eta aise irabazi zion ere.

Ondoko herrian lehiatzeak bere aldeko zaletu ugari biltzea ekarriko dio Otaegiri. Horrek bere alde ona eta txarra dituela gogorarazi du zizurkildar gazteak: «Alde batetik animo gehiago izango ditut ikusle goaren aldetik, baina baita ere presio gehiago irabazteko».

Entrenatzen gogoz ari da, baina azken egunotan izandako eguraldi aldaketa ez zaio komeni. «Aizkoran beroa ez da ona, giro hotza nahiago dut nik», esan du Otaegik. «Eguraldi beroak aizkolaria moteldu egiten du eta itolarria areagotzen du».

Lehiaketa kanporaketek osatuta dago. Beraz, larunbatean irabazi beharra du Joseba Otaegik aurrera egiteko. Binakako txapelketan irabazi osten faboritotzat joko dute la esan du Otaegik, baina larunbatean aurkari zaila izango duela ere badaki aizkolaria zizurkildarrak.

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bihurtu. 800 enpresa, kateak, denda, jatetxe... eta ere gutxienez erakunde bakoitzeko gehiagok euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

UGAITZ RENOBALDES ▶ PILOTARIA

«Ez nuen GRAVN txapelketan aritzea espero, ohore handia da niretzat»

Ugaitz Renobales pilotariak Gipuzkoa ordezkatzeko du probintzien arteko GRAVN txapelketan; «irudi ona» ematea eta «emaitza onak» lortzea du helburu gazteak



NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

18 urte baino ez ditu alegiar honek eta dagoeneko hobereen artean kokatu da pilota munduan, izan ere afizionatu mailan lehendabiziko urtea duen honetan, Gipuzkoa ordezkatzeko aukeratu izan da GRAVN txapelketan. Bere esperientzia berri honekin «oso pozik» dagoela eta «irudi ona» eman nahi duela aitortu dio HITZARI Ugaitz Renobalesek. **GRAVN txapelketan aritzeko dei egin dizute. Zer suposatzen du honek zuretzat?**

Ez nuen inola ere espero hautatu izango nintzanik. Begiraleak izaten dira norgehiagokak ikusten eta niri entrenatzera joateko esan zidaten. Zorte ona izan nuen eta oso saio ona bete nuen; hamar hautagai ginen eta bikote bat eta banakako beste bat aukeratu zituzten. Gipuzkoako ordezkaria izatea ohore handia da niretzat behintzat eta probintzietako hoberenen aurka aritzea pozik egoteko modukoa da. **Zer moduzko maila topatu duzu zuretzat berria den lehiaketa honetan?**

Oraindik goiz da hori esateko, baina alde nabaritu dut. Aurreko partidaren bizkaitarren aurka aritu ginen eta oso gogorra izan zen. Azkenean 22 eta 18 irabazi genuen. Hurrengo Errioxaren aurka ariko gara. **Zure bikotekidea ezagutzen al zenuen?** Beasaindarra da bera eta aurreko aldian da elkarrekin jokatzen dugula. Bera hiru urte zaharragoa da eta esperientzia badu. Azkenekoan pilotak ekarri eta ekarri aritu nuen eta nik, aurrelari bezala, ondo erantzun nuen.

GRAVN TXAPELKETA

«Hautaketa probetan oso saio ona egin nuen eta bikoteka aritzeko aukeratu ninduten 10 pertsonen artean»

HELBURUAK

«Oraingoz afizionatu maila ona erakustea dut helburu; geroako gero ikusi beharko dira»

DENBORALDIA

«Oso gustura eta gogo handiarekin sentitzen naiz txapelketarako; nire buruan konfidantza dut»

Zer oinarri hartzen dute aintzat Gipuzkoako ordezkariak hautatzerakoan?

Ez dizkigute zehazki baldintzak banan bana azaldu. Beraiek aztertu eta eurek bilatzen zutena hobekien betetzen duena aukeratzen dute. Pilotari ona izateko fisiko ona, kemena eta, batez ere, langilea izatea eta burua bere lekuan izatea da beharrezkoa. Pilotarako gogo handia duzula demostratu behar da. **Eta zuk denak betetzen al dituzu?** Ez dakit den-dena beteko ote dudan. Gogo behintzat ez zait falta, eta gogor egiten dut lan,

entrenamenduetan bai eta entrenamenduetatik kanpo. Aste bitan entrenatzen dut, fisiko eta partidoak eginez. Horretaz gain, nire kabuz korri egitera joaten naiz.

Zer moduzko denboraldia burutzen ari zara?

Oso gustura sentitzen naiz. GRAVN txapelketarako aukeratu izateak ere indarberritu egin nau eta konfidantza dut nire buruan.

Afizionatu mailan lehen urtea da zuretzat. Zein balorazio egingo zenuke?

Alde handia nabaritu dut. Gazteena naiz maila honetan, eta nire aurkari gehienak ni baino helduagoak dira. Hori jokoan isladatzen da. Aurreko urteetan errazago irabazten nuen besteak baino zaharragoa nintzelako; orain kontrakoa sufritzen ari naiz, baina horrela gehiago ikasten da.

Noiz hasi zinen pilota munduan?

Zazpi urterekin, asko gutxi. Alegian bertan hasi eta ondoren Ikaztegietakoa taldera joan nintzen. Duela bost urte Aurrea-Saiatz taldera etorri nintzen, kadete nintzela.

Karrera luzea duzu, beraz; ziur hamaika sari lortuko zenuela.

Guztira bederatzi txapel ditut etxean. Garrantzitsuen Sospelako eskuz banakakoa finala izan zen, telebista eta guzti izan zen bertan. Afizioak ere ondo erantzun zuen eta hunkigarria izan zen benetan. Partida horren oso oroitzapen politik gordetzen ditut.

Zeintzuk dira zure helburuak pilotari moduan?

Oraingoz afizionatu mailan ondo jarriztearekin konformatzen naiz. Gora igotzea lortuko banu, ikaragarria izango litzateke, baina jakin badakit hori oso zaila dela, izan ere punta puntan ibili behar zara horretarako eta enpresen gustukoa izan behar zara. Horretatik maila ona erakustea dut helburu une honetan. Aurrerago ikusiko dugu zer gertatzen den, geroako gero.

iragarki laburrak ▶



Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, terraza eta garajea aukeran.

Andoain. 75 m²-ko etxebizitza kanpoaldera, igogailua, eguzkitsua.

Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; oso argitsua eta garabiarekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza Colon pasealekuan salgai. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

Donostia. Duplex zoragarria. 70 m², berritua, ikuspegi ederra Gros hondartzara.

Donostia. Urbieta kalea, 90 m²-ko etxebizitza. Berritzeko.

Donostia. Donostizarra. 75 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera, oso eguzkitsua eta itsasora begira.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria salgai.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Segura. Berritako etxebizitza, bi eta hiru gelakoak eta lur sailarekin.

Tolosa. Agintari kalean 75 m²-ko eraikuntza berriko etxea salgai.

Igogailua eta trastelekua.

Tolosa. Santa Klara kalean 90 m²-ko etxebizitza berritua. Atzealdean baratz propioa.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin islinean, 110 m²-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua.

Berritzeko premia.

Tolosa. Lokal komertzialak, salmantan edota alokairuan (Gorosabel, lurre, kale Nagusia, Larramendi...).

Villabona. Arroa kalean etxebizitza lehen solairuan. Igogailua, hiru ikuspegi, berritzeko.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Ibarrako Askatasunari erantzuna

Ibarrako Askatasunak Hitzara bidalitako eskutitzari erantzunez, EA-EAJ taldeak eta independenteak honako hausnarketak hauek egin nahi ditugu:

Esaten duzue udal hau ez dela ezer egiten ari Uzta plataformarekiko *apartheid* deitzen duzuen konpontzeko; bada, guk juxtu kontrakoa pentsatzen dugu, eta hori berresteko bi adibide jarriko ditugu:

1) Uzta plataformarekin izan dugun bilera batean, plataforma horretako buruetako batek hau esan zigun hitzez hitz: «Ez dugu udal honentzat lan egingo gero zuek gure lanaz aprobetxatzeko».

2) Gogorarazten dizuegu legegaldia hasi zenetik, Kultura Batzordeaz aparteko informazio batzorde bakar batean ere ez duzuela parte hartu. Nor ari da *apartheid* egiten?

Ez saiatu Ertzaintzak bigarren ilaran aparkatutako autoei jartzen dizkien isunen bitartez herria manipulatzeko. Udal honek Udaltzaingorik ez duen

bitartean, trafiko arlo guztia Ertzaintzaren eskumen eskuluboa da; Udalaren eskumena herriko aparkalekuak egokitzeko da, eta uste dugu horretan gure eginkizuna ondotoxete bete dugula, izan ere, legegaldiko urte eta erdian 100 aparkalekutik gora egokitu ditugu Kanpan, Eskolapioetarako goigeroan eta Leaburuko errepidean besteak beste.

Horretaz gain, aipatu duzue euskara jakin gabe nola izan ote litekeen alkate. Oso erraza da, Ibarrako herriak 2003ko maiatzeko udal hauteskundetan eman zizkion botoen bitar-

tez. Gai honetan eskertzeko da alkate andrea euskara ikaskeko egiten ari den ahalegin handia.

Baina lotsagarria eta gaitzesgarria iruditzen zaiguna bi pertsona zehatzen kontra egiten den akusazioa da, hain zuzen Emeterio Sorazu eta Mikel Agirrerren kontra.

Ez Emeteriok, ezta Mikelek ere, inoiz ez dute Udal honetara jo festak Emeterio Arrese parkera eramateko eskatzera. Udal honen lehentasunetako bat parkea egokitzeko da, hartarurtean zehar plazan egiten diren kultur eta jai ekitaldi eta

feria batzuk han egiteko eta plaza pixka bat arintzeko, plazaren inguruan bizi diren pertsonengandik udaletxean keza ugari jaso direlako.

Udal honen partetik, gure babesik handiena eta egiazkoena Emeterio Sorazuri eta Mikel Agirrerri, gure herriaren onerako egin duten eta egiten duten lan handiarengatik.

Bukatzeko, aholku bat, eguneroko besteak salatzen ibili beharrean, behingoz egizue auto-kritika saio bat, beharra baduzue eta.

CHELO ROMEO
(EA-EAJ TALDEA) ▶ IBARRA

ELDUAIN ▶ SUTEA

Suteak kaltetutako zerrenda ireki dute

Erreklamazioak egiteko kalteen baloraketa egina izatea eskatzen da; sutearen argazkiak ere eskatu dituzte



Sutearen ondorioak eta atzean Elduain herria. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Elduaingo Udalak pasa den igandean sortu zen sutearen ondorioak ekonomikoki neur-

tzeko asmoz, kaltetuen zerrenda ireki du udaletxean.

Horrela, kaltetu suertatu diren herritarrei jakinarazten zaie udaletxera bertaratzeko eta

fotoplanoen laguntzarekin, kiskali zaizkien terreneoak zein diren adieraztea eskatzen dela. Era horretara, datu guztien bilduma, Foru Aldundiak osatu behar duen txostenean jasota geratuko litzateke.

Edozein erreklamazio edo laguntza bideratu ahal izateko funtsezkoa izango da, kalteen baloraketa egina izatea. Eta beste edozein kalte jasan duten herritarrek ere, Udalaren bulegotik pasa eta kalte-orrria bete beharko dute.

Bestalde, Udalak, suteari dagokion argazkirik dutenei udal bulegoetan aurkeztea eskatu du, frogagiri bezala lagungarri izan baitaitezke. Argazki hauek www.elduain.com web orrian argitaratuko dira.

Elduaingo Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie sua itzaltzen laguntzen aritu direnei.

IBARRA ▶ ATXILOKETAK

Abokatuarekin jardun ahal izan du Altunak

Gaur eskualdeko manifestazioa egingo da Lizartzan atxiloketa salatzen 20:00etan

I. TERRADILLOS

Pasa den larunbatean atxilotu zituzten Haimar Altuna eta Maite Aranalde Ibartarrak eta Iñaki Arietaleaniz bergararra Parisen aurkitzen dira epailearen aurrera noiz pasako esperoan.

Atzo arratsaldean, Haimar Altuna ibartarrak Yolanda Molina bere abokatuarekin egoteko aukera izan zuen ordu erdiz. Izan ere, Altunak abokatu izendatu zuen eta horregatik izan du epailearen aurrera pasa baino lehen berekin jarduteko aukera. Aranaldek eta Arietaleanizek, ordea, ez dute izendatu abokaturik.

Yolanda Molina abokatua Haimar Altunarekin jardun ostean, segituan jarri zen harremanetan atxilotuaren senideekin; hauek HITZARI esan diotenaren arabera, ibartarra «egoera onean aurkitzen da,

baina kolpe batzuk ditu arpegian, eta poliziek izandako jarrerara oso gogorra izan zen».

Bitartean, bi atxilotu ibartarren aldeko mobilizazioak ez dira geratu ez Ibarran ez eta Lizartzan ere. Astelehenean, Lizartzan 60 lagunek osaturiko batzarra eta ondoren giza katea egin zen atxiloketak salatzeko. Atzo, kontzentrazioa egin zuten eta gaur, berriz, manifestazioa abiatuko da herriko plazatik 20:00etan. Eskualde mailako manifestazioa izango da gaurkoa, hainbat herritako amnistiaren aldeko mugimenduk bertaratzeko asmoa baitute.

Ibarran, bestalde, atzo batzar informatiboa egin zuten Kultur Etxean. Etzi, hileko azken ostiralero agin ohi den bezala, Etxerat-ek antolatutako kontzentrazioak izango dira; kasu honetan, bi argazki gehituko dituzte bata Ibarran eta beste Lizartzan.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

Korrika 14 argazkiak

Euskararen aldeko lasterketak utzitako irudiak ikusteko aukera

Zuk egindako argazkia ere bidali eta web atarian jarriko dugu

LEITZA ▶ KULTURA

Els Verdums eta Asketa Txiki arteko loturak sortu dituzte

Asteburua Leitzan igaro eta kontzertu emanda Igualadara itzuli dira, batzuk; hurrengo astean leitzarren txanda izaki, Kataluniara joanen dira trukean



Ongietorria egiteko Els Verdums abesbatzarekin batera abestu zuen Asketa Txiki ere. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Igualadatik (Katalunia) etorri ziren lehengo ostiralean, «berreziki maite dugun zuen lurralde hau ezagutzera», ongietorrikoan adierazi zuten eta katalanez, noski, eta astelehen arratsaldean ekin zioten itzule-rako bidaiari.

Els Verdums haur-abesbatzakoak ekarri zituzten asmoak beteta joan dira: Euskal Herria pixka bat ezagutu, bertako jendearekin egon, hemengoak ditugun ohitura, kultura eta kirolari ere begiratu txoa egin, euskarazko hitz batzuk ikasi... eta lagun berriak egin ere bai. Horietxe omen ziren beren as-

moak, bidai honi ekin ziotenean: kontzertua bera ematea baino, kultur trukaketa egitea zute helburu. Eta horretarako balliatu dute aukera, izan ere Asketakoe agenda bete ekitaldi antolatuta baitzieten: pilota partiduak, dantzak, jokoak, mendira irteerak... eta noski, kontzertua ere bai.

Igandean eman zuten kantaldia, elizan. Batez ere haur kantak egin zituzten, hango herri-kantak, esku-jokoekin lagunduz. Hasiera elkarrekin egin zuten bi abesbatzek, euskaraz eta katalaneraz abesti bana eginez. Opariak elkartrukatu ondoren, bukatu, ohi denez, *Agur jaunak* kantatuz egin zen. Els Verdums oso koru gaztea da, Igualadako abesbatza eskolako ikasleak dira. Oso tikitatik parte hartzen omen dute han abesbatzetan, hala adierazi zioten HITZARI. Eta irakasle lanetan ere begirale gazteak dituzte.

Oso asteburu polita izan dela adierazi zuten Asketakoeak, atzo: «Trukea bikaina izan da. Beraiek batez ere hori bilatzen omen zuten, kontzertua aitzaki hartuta. Eta oso gustura joanak dira eta guk ere hori ikusi dugun», zioten, oso baikor eta hara joateko gogo biziz.

Etorritakoan artean, oraindik hara itzultzeko asmorik ez duenik ere ba omen da, izan ere umeak etorri behar zutelareta, familiak etorriak dira opor egun hauetarako bertara.

KIROLA ▶

Paleta gomako Euskal Herriko Txapela irabazi dute Agirre-Iraolak

Belate Txapelketan, benjamin eta infantilen mailako sari nagusia ere, Aurrerak lortu du

J. ASTIBIA

Asteburu honetan jokatu dira elkarrean arteko pilota txapelketa zenbaiten finalak eta Aurrerako pilota eskola pozik egoteko moduan da, txapela franko buruan dutela itzuli dira-eta pilotariak.

Horrela, paleta gomako Euskal Herriko txapela eskuratu zuten Iera Agirre eta Saioa Iraolak, Ordiziako finalean.

Gauza beretsua egin zuten Belate Txapelketan ere, benjaminen eta infantilen mailan, Mi-

kel Sagastibeltza-Anartz Olanok eta Ander Aranburu-Jon Jaunarenak, hurrenez hurren, txapela eskuratu. Kadetetan, ozta-ozta baina, azpitxapeladun gelditu ziren Xabier Alustiza eta Migel Olano. Asteburu oparoa izan da, beraz, pasa berri hau, Aurrera elkartearantz. Gaztetxoek lau sari nagusi irabazi baitituzte, asteburu jokatuak ligaxkan eskuratutako puntuez baliatu eta finalera iritsi ondoren. Pozik ziren.

Oraindik ligaxkarekin ari direnak, Erreka txapelketako

EMAITZA ▶

EUSKAL HERRIKO PALETA GOMAKO TXAPELKETA

Finala. Aurrera (Agirre-Iraola) 30/Erreka (Iriarte ahizpak) 23.

ELKARTEEN ARTEKO BELATE TXAPELKETA

Finalak.
▶ **Benjaminak.** Aurrera (Sagastibeltza-Olano) 18/Donibane (Alduntzin-

parte-hartzaileak dira. Kasu honetan, besteak beste, maila nagusiko Aurrerako ordezkariak aresoarrak dira eta hone-takoan, Olazabal-Barandarain bikotea 13 tantotan gelditu zen, Urdaniz-Antxoren aurrean; Esan behar da Unai Ontsaloko aresoarrak ere jokatzeko duela sariketa honetan, baina bere

Fernandez) 8.

▶ **Infantilak.** Aurrera (Aranburu-Jaunarena) 18/Arbizu (Ansotegi-Ezkurdia) 17.
▶ **Kadeteak.** Aurrera (Alustiza-Olano) 19/Araxes (Otermin-Goikoetxea) 22.

ERREKA TXAPELKETA

Ligaxka. Olazabal-Barandarain 13 / Urdaniz-Antxo 22; Ontsaloko-Eraso 22 / Etxeberria-Otxotorena 20.

pilota-bikotea erretiratu egin dela, eta ondorioz lagun berria, Erasoko, Erreka elkarteko izaki, txapelketan haiekin ariko dela aurrerantzean, aditzera eman dutenez. Kasu honetan bai, garaipena eskuratu zuten Ontsaloko-Erasok, Etxeberria-Otxotorena 20era gerturatu bazitzaiezkieen ere.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amarozen dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ugarte. Euskal Herria 46

(Ibarrak). 943 673 274

Erbiti. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Iddea. 687 41 00 22

anoeta-idea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza-Iddea. 687 41 01 18.

leitza-idea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Leitza. Oialde taberna alokatzen da. Jatetxea aparte alokatzeko aukera. Interesatuek deitu 948 510 213ra.

LANA

Ileapaintzailea. Ileapaintzaile bat behar da sei hilabetetarako. 943 694 261.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 23a, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzola, Aizua, Albitzar, Añeta, Añeta, Albitz, Amadeita, Aneto, Araso, Balamán, Balantza, Baratz, Berro, Etxauri, Herrialde, Ibarra, Itzategi, Iturza, Lizarra, Lizarra, Oñativia, Oñati, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauriaritza
Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzena

10

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Elvereth (heavy metal) eta Mala hierba (punk rock) taldeen kontzertuan 23:00etan Gaztetxean. Sarrera doan.
Amezket. Herri batzarra hauteskunde autonomikoez gela polibaletean 20:30ean. Ezker abertzaleak deituta.
Anoeta. Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua 18:00etan elizan.
Anoeta. Festa alternatiboak antolatzen bilerak udaletean 19:00etan.
Anoeta-Irura. Helduen xake taldea osatu nahi da. Izen-ematea, bi udaleteetan.
Anoeta-Irura. Autodefentsa ikastarorako izen-ematea bi udaleteetan.
Areso. Emakumeen afaria larunbatean Pake toki elkartearen. Izen-ematea: panaderian, Sastinea tabernan eta elkartearen.
Tolosa. Apirilaren 10ean 51ko kintoak elkartuko dira. 11:00etan meza San Frantzisko elizan eta 14:00etan bazkaria Mendialde jatetxean. Izen-ematea 943 65 45 92 (Jose Maria Tolosa), 943 52 54 41 (Jose Mendizabal) eta 943 65 17 99 (Mendi-alde jatetxea).

ZINE-KLUBA

Alegia. Arrebato EH
Gaztetxean 21:30ean.

Jantziak enkantean

TOLOSA ▶ Ainhoa Artetak, Abraham Olanok eta 'El Juli'-k emanda, maputxeen aldeko laguntza jasoko da; Ricardo Ugarteren eskultura ere subastatuko da



Kubako erakusleihoan ikus daitezke Arteta, Olano eta *El Juli*ren jantziak eta Ugarteren eskultura. J. SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Ezaguna da jada hainbat tolosarrek Txileko maputxeen alde burutzen ari dira kanpaina: egur lehorgailu bat bidaltzea. Kanpaina horren

barraun beste ekitaldi bat prestatu dute: proiekturako dirua lortzeko, artista ezagun batzuen objektuen enkantea. Curarrehue herrian Iñaki Arriola tolosarra eta beste eskolapoi batzuk ari dira maputxeekin la-

nean, eskola, barnetegia, zerrategia, negutegia... eraiki dituzte. Egur lehorgailu honi ezker maputxeek irabaziak laukoiztu egingo dituzte.

Lehorgailuaren makineria eta materiala martxoaren 8an

abiatu zen Bilboko portutik bi edukinontzitan eta hilabeteen Valparaisora iristea espero dute. Maiatzean Tolosako mekanikoak joango dira montatza eta sanjoanetarako inauguratu nahi dute.

70.000 euro baino gehiagoko aurrekontua du proiektuak, bidaia, gestioak eta beste gastu orokorrak kontatu gabe. Hori estaltzen laguntzeko kontu korronteak ireki dituzte BSCH eta Kutxan. Herritarren laguntza eskatzen dute.

Horrekin batera, laster enkantean jarri dituzte hainbat pertsona ezagunek emandako objektuak: Ainhoa Arteta soprano tolosarraren soinekoa, Abraham Olano txirindulari anoetarrek bere azken Tourrean erabili zuen maillota, Julian Lopez *El Juli* toreatzailearen traje distiratsua eta Ricardo Ugarte eskulturgilearen lan bat.

Lau objektu horiek ikusgai daude Tolosako San Frantzisko kaleko Kutxaren erakusleihoan eta hemendik denbora gutxira Internetez edo Donostiako hotel batean enkantean jarriko dira. Irabazitako dirua Tolosa egur lehorgailu maputxerako erabiliko da.

AGURRAK ▶



EUSKAL PRESOAK GOSE GREBAN

Bederatzigarren eguna. Aupa EPPK-ren borrokalariak. Jo ta ke irabazi arte. Ebekoak.



URTE ASKOAN
Martin Adurriaga Aizpurua
(Txarama). Gaur 5 urte.
Ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Elena Intxausti (Zizurkil).
Zorionak
famiariaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak...

zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!